

**EUROPAKO LANGILE-MUGIMENDUAREN
PROTOHISTORIA:
INGALATERRAKO ETA FRANTZIAKO
LANGILE-ELKARTEAK ERREGIMEN
ZAHARRAREN BUKAERAN ETA ARO
GARAIKIDEAREN HASIERAN**

Juan Gracia

Artikulu honetan Europako langile-mugimenduaren lehendabiziko urratsak aztertzen saiatu gara, bi garai historikotan izandako ezaugarriak analizatuz. Aurrena, Erregimen Zaharrea Ingalaterrako eta Frantziako langile-elkarteek eduki zituzten ohizko erak ikertzen dira, elkarateok “ekonomia moral” baten eremuan ulertu behar ditugula azpimarratuz. Bigarrenik, XIX. mendearen lehendabiziko erdian elkarateok izandako bilakaera aztertzen da, Ingalaterrako Industri Iraultza eta Frantziako Iraultzaren ondoren elkarate hauetan agertutako aldaketak erakutsiz.

I. Sarrera historiografikoa

Ez da batere erraza, langile-mugimendua noiz hasten den esatea baina, ezbairik gabe, gai honi buruzko historiografian -zenbait historialari *amateur* dela kausa-topiko desegoki batzuk hedatu direla aitortu behar da. Adibide bakar bat ipintzearren, analisi historiografiko zehatz batek azpimarratu behar du mementu batean greba esporadiko bat izatea ez dela nahikoa han langile-mugimenduaren hastapenak agertzen direla esateko, zeren eta, argudio honi jarraituz, Egipto klasikoan zegoeneko langile-mugimendua azaldu zela esan baitliteke. Adibide honetaz Webb senar-emazteak, orain dela urte asko, izkiriatu zuen legez, honelako ganoragabekeriak baztertuta geratu behar dira, ikerketa historiko serioa burutu nahi izanez gero¹.

Irizpide zehatzak segitzen baditugu, langile-mugimenduak bere bilakaera Aro Garaikidean hasi zuela baieztatu behar da. Baina langile-mugimendua agertu baino lehen, langile-elkarteak ezagunak ziren. Egia esan, eta dudazko aurreko batzuk (alegia, erromatar *collegia*) alde batera utzita, Europako langile-erakundeak, soberan jakina denez, Erdi Aroan azaldu ziren. Era honetan, ohizko gremioekin lehendabiziko langile-elkarteak ditugu, batipat XIV. eta XV. mendeetan gremio edo ermandade hauek zeharo garatu zirelarik².

Aipatutako gremioak eremu ekonomiko berezi baten barruan sortu

ziren, hots, *ekonomia moral* baten barnean, Thompson-en adierazpen famatua erabiltzearren³. Ekonomia moral honen zentzua ongi uler dezagun, kontutan eduki behar da ideologo organiko batzuek (Erdi Aroko teologo kristauek) konzepzio honen oinarriak ipini bazituzten ere, denbora joan ahala, ideologia hau herri-mentalitate bihurtu zela, jende xeheak ideia hauek erabat bereganatuz. Ekonomia moral honen oinarri nagusiei jarraituz, prezioek eta alokairuek bidezkoak izan behar zuten, gaurko ekonomian mitifikatu dugun merkatuari kasurik egiteke. Gremioek, soldata eta salneurri justoak ipintzeaz gain, produktuen kalitatea ere kontrolatzen zuten, hain zuzen ere iruzurrak ekiditeko asmoz. Alabaina, gremioak ez ziren erakunde ekonomikoak soilik, askoz helburu zabalagoak baitzituzten; honela, bazkideen (mais, ofizial eta aprendizeen) solidaritatea eta euren arteko harreman onak mantendu nahi zituzten.

Historialari askok azpimarratu duten bezala, azken xede idiliko hauek ez ziren sarritan betetzen, bazkideen arteko gatazkak naharoak izan ohi zirelarik. Edozein kasutan ere, ezin dugu historialari kontserbatzaile batzuk aipatu dutena ahortzi: mais, ofizial eta aprendizek, produkzio-unitateak eratzeaz gain, halaber lantegi bakoitzean familia berezi bat osatzen zutela⁴. Ikuspuntu hau defendatuz, erakutsi barik dagoen aurriritzi ideologikoa adierazi nahi da; hots, gremioen arteko gatazkak ez zirela sozialak, pertsonalartekoak baizik, etxekoek ere antzeko arazoak

ohi zituztela argudiatuz. Jakina, historialari marxistek ez dute aipatutako irizpidea onartu; ordea, gremioak egitura jerarkikoak zirela azpimarratu dute, gizarte-esplotazioaren froga zirela ahaztu ezinik.

Oraintsu izkiriatu dugunarekin batera, noiz hasten den ematen langileen arteko klase-kontzientzia galde daiteke. Noski, arazo hau historialari marxistek baino ez dute plazaratzen, gainerako historialariek planteamendu hauek aintzat hartu barik⁵. Azken historiografiari dagokionean, klase-kontzientziari buruzko debatean historialari ingelesak batipat aritu direla baieztatu daiteke. Polemika historiografiko hau luzeegia izan litekeenez, hemen hiru historialarik azaldu dutena baino ez dugu aztertuko, hots, E. P. Thompson, J. Foster eta E.J. Hobsbawm-en argudioak analizatuz.

E. P. Thompson-i dagokionez, orain dela 30 urte, historialari honek industrializazioa sortu baino lehen klase-kontzientzia agertu zela adierazi zuen⁶. Thompson-ek benetako langileria XIX. mendean bakarrik agertu zela onartzen badu ere, XVIII. mendean berak deitutako “plebeak” klase-kontzientzia zuela idatzi du, gainera “plebeieuek” merkatal kapitalismo erasokor baten aurka dudarik gabeko klase-borroka garatu zuten⁷. Dena den, plebe honek burututako klase-borrokak ez du (bere tankerari dagokionez, bederen) ondoren langileriak gauzatu zuenarekin zer ikusirik, plebe honetan kultura berezi eta propioa baitzegoen,

klase-borrokak herri-protestaren erak hartzen zituelarik⁸. Bestalde, protesta-mota hau zeharo konplexua zela adierazi behar dugu, ideia paternalista batzuk (batez ere, goian aipatutako salneurri bidezkoaren argudioak) aprobeztatu zituelako, honela goiko klaseen aurrean herri-errebolta errespetagarriagoa izan zedin.

70.eko hamarkadan, historialari ingelesei dagokionez, klase-kontzientziari buruzko saiorik interesgarriena, dudarik gabe, J. Fosterrek idatzitakoa izan zen⁹. Egile honek, Lenin-ek erabilitako argudioei erabat jarraituz, klase-kontzientzia eta kontzientzia sindikala bereiztu behar zirela azpimarratu zuen. Berauek izkiriaturatutakoaren arabera, Ingalaterrako XVIII. mendeko azken urteotan kontzientzia sindikala zegoeneko hedatuta zegoen, baina klase-kontzientzia XIX. mendeko lehendabiziko hamarkadeetan besterik ez zen sortu. Azken prozesu hau azal zedin, langileriak eta bere abangoardiak bat etorri behar zuten, helburu berbera bilatuz. Modu honetan, hiri ingeles (Oldham) baten azterketaren bidez, Fosterrek XIX. mendeko 30.eko hamarkadako ingeles langileriak iraultza prestatzeko beharrezkoak ziren baliabide guztiak menperatzen zituela erakutsi nahi izan zuen: taktika ezlegalak (batipat, grebak), herri-mobilizazioaren estrategiak (baita armak erabilia ere)...; gainera disziplina eta antolakuntza ikaragarria zeuzkan. Honekin batera, Oldham hiriko kasuan, langileriak bazuen baldintza garrantzitsu bat: bertako burges txikiek oso abangoardia kontzientziatua

eratzen zuten. Honela, burgeseria txikiak tokizko botereak (udala, polizia, ...) kontrolatzea lortu zuen, ohizko erradikalismo politikoa nagusitzeko asmotan. Azkenengoz, Fosterrek adierazten zuen kartismoaren garaian langileria eta abangoardia iraultza politikoa gauzatzen saiatu zirela, tamalez ahalegin honek porrot egin arren. Egun (marxismo-leninismoaren teoriak krisi sakonean daudenean) ideia hauek inozoak direla pentsatu ahal bada ere, Fosterren liburua orain dela 20 urte arras eraginkorra izan zela aipatu beharrean gaude, bere izkribua dokumentazio, metodo estatistiko eta oinarri teorikoen sintesi bikaina izan zela onartu behar dugularik.

Beste testuinguru batean, debate honetan E.J. Hobsbawm-ek burututako ekarpena oso desberdina izan zela esan daiteke, hemen egingo dugun azterketan berak idatzitako bi liburu ospetsutan agertzen diren ideiak oinarritzat hartuko ditugularik¹⁰. Historialari honen ustez, aipatutako polemikan funtsezko bereizketa bat egin behar da, alegia, langileria eta “langile pobreak” oso errealtate desberdinak direla azpimarratuz. Hau da, langile pobreek XVIII. mendean eta XIX. mendearen hasieran herria osatzen zuten bitartean, benetako langileria XIX. mendearen bigarren erdian baino ez zen eratu. Ildo honetatik jarraituz, Hobsbawm-ek honako hau baieztatzen du: langile pobreek klase-borroka garatu bazezaketen ere, ez zuten inoiz klase-kontzientziarik izan, azken fenomeno hau XIX. mendearen azken hamarkadetan bakarrik sortu zelarik.

Irakurleak ikusi ahal izan duen legez, 60.ko eta 70. eko hamarkadeetako historialari marxistak, klase-kontzientziaren arazoa aztertu zutenenean ez ziren ados jarri. Azken urteotako historiografian debatea askoz konplexuago bihurtu dela aitortu beharrean gaude, zalantza metodo linguistiko eta antropologiko batzuk erabiltzen saiatu da eta¹¹. Azken historiografia honen balioa jakitea zaila suertatzen zaigunez, ez gara honi buruz luzatuko, interesatuta egon daitekeen irakurleari azken oharrean emandako bibliografiara igorritz.

2. Langile-elkarteak Aro Modernoan eta erregimen zaharraren bukaeran

Saio honetan ingeles eta frantziar ereduak bakarrik aztertuko ditugu, hauei buruz ekarpen historiografiko adierazgarrienak idatzi baitira, Europako gainerako estatuetan gai honetaz izandako bibliografia historikoa besteko garrantzirik ez duelarik.

a.- Ingalaterrako kasua: Langileen aldeko babespen legala eta bere krisia.

Nazio honetan, Aro Modernoa hasi baino lehen (alegia, XV. mendean) langile-elkarteei buruzko lehendabiziko aipamenak azaltzen dira, hain zuzen ere legislazioak elkartek debekatzen zituenean. Araudi juridiko hauen arabera, ofizialen bilerak guztiz ezlegalak ziren eta, honekin batera, langileak maisuen etxeetan bizi izatera behartuta zeuden, bere autoritatea erabat errespetatuz.

Aro Modernoan zehar, Ingalaterrako artisautzan lan egiten zuten ofizialek (Europako gainerako lurraldeetan gertatu zen modura) bere egoera sozioekonomikoa okerragotu zela ikusi zuten, maisu bilakatzeko gero eta aukera gutxiago zutelarik. Beraz, Erdi Aroan ofizial askok higikortasun soziala agertuko zela itxaron zezaketen bitartean, XVI. mendearen ondoren langile gehienek bazekiten haiek lantegi baten jabe bihurtzea, ezinezkoa ez bazen ere, arras zaila zela. Honela, ofizialen bizimodua aldatzen hasi zen, zeren eta Aro Modernoan barrena langile ezkonduak ez baitziren normalean maisuen etxeetan bizi, eta, jakina, prozesu honen ondorioz ez zuten maisuen familia osatzen, euren ohizko menpekotasuna ahulduz zihoalarik. Hau zela eta, ezin zitekeen esan ofizialek morroiek edo nagusien etxeek izandako estatusa eduki behar zutenik, baizik eta ofizialen egoera askoz ere libreago bihurtu zen, langile hauek euren interesak defendatzeko gero eta elkarte sendagoak eratu zituztelarik.

Bestalde, XVI. mendeko botere politikoa ofizialen egoera babesten hasi zen. Gertakari honen adibide bat aipatzekotan, Isabel erreginak ofizialei emandako estatutua gogora daiteke, honetan aspektu garrantzitsu bat agertzen baitzen: maisuek ofizialei bidezko soldatarik ordaindu ezean, langileek epaile batengana jo zezaketen, azken honek ofizialen ohizko eskubideak bete behar zirela bermatzen zuelarik. Honez gain, aipatutako ofizialen estatutuan beste arau inportante bat agertzen zen,

aprendizen kopurua zeharo murrizten zelako. Honela, gehien jota, maisu bakoitzak hiru aprendiz bakarrik izan zezakeen eta gazte hauek zazpi urtez ofizioa ikasten egon behar zuten. Neurri honen bitartez, lan-merkatuan ofizialek aukera gehiago eduki ahal zuten, diru gutxi irabazten ohi zuten gazte askoren konkurrentzia ezabatuta geratzen zelarik.

Arau juridiko mesedegarri hau izanda ere, langile-elkarteak noiz behinkakoak izaten ziren eta, kasu gehienetan, kofradia edo ermandade erlijiosoen erak hartzen zituzten. Erakunde hauen helburua kristau karitatea gauzatzea zenez, hauetan sartuta zeuden langileek (gaixorik egoten ziren bitartean edo zaharrak zirenean) eta bere alargunek edo umezurtzek diru-laguntzak jasotzen zituzten. Baina xede teoriko hauek betetzeaz gain, elkarateok -nahiz eta era klandestino batean izan- sarritan maisuekin lan-baldintzak negoziatzen zituzten. Modu honetan, Londreseko kapelagintzan eta inprimagintzan aritzen ziren ofizialek zenbait greba burutu zuten XVIII. mendean, batipat lan-ordutegi eta soldata hobeak lortzeko asmotan. Ofizial hauen elkarateek (*clubs* izenekoek) ostatuetan eduki ohi zituzten euren bilerak, normalean egoitza finkorik ez baitzuten izaten.

Europako beste estatu batzuetan suertatu zen antzera, Aro Modernoa garatzen zen heinean Ingalaterrako langile-elkarteak gero eta aktiboago bihurtzen ziren. Honen lekukoa hauxe izango litzateke: azken historiografiak erakutsi duenez, XVIII. mendean,

gutxi gorabehera, 50 langile-elkarte azaldu ziren, erakunde hauek gutxienez 300 maisu eta ofizialen arteko gatazka bultzatu zutelarik. Greba hauek iraupen laburra izan ohi zuten, maiz herri-protestaren tankera tradizionalak hartuaz; hortaz, ez zen harritzekoa greba hauetan parte hartzen zuten ofizialek eskirol edo maisuen aurkako intimidazioa behin baino gehiagotan erabiltzea, lantegi batzuetan lan-tresnak edo erremintak apurtzen zituztelarik. Ikusten denez, luddismo ospetsua ez zen Industri Iraultzaren ondoren agertutako fenomeno bat, baizik eta askoz lehenago azaldutakoa. Bestalde, XVIII. mendeko langile-elkarte batzuk oso prestakuntza aurreratua zutela esan beharrean gaude, grebak mantentzeko erresistentziak ere ezagunak baitziren. Honez gain, greba hauek mementu egokietan bakarrik planteatzen ziren, hain zuzen ere lan-eskasia nabaria zenean eta honen ondorioz, langileen garaipena posible zenean, elkarrekin oso jokaera zuhurra erakusten zutelarik.

Nahiz eta teoriak XVIII. mendean langile-elkarrekin legalak izan, azken urteotako ikerketa historikoetan erakunde hauen kontrako dekretu asko aurkitu dira, elkarrekin konspirazioa prestatzen zuteneko aitzakiarekin salatuak izanez. Langile-elkarte hauen aurkako ekintza legalak, batez ere, XVIII. mendeko bigarren erdian areagotu ziren eta, noski, hau ez zen kasualidadez gertatu, garai horretan Britainia Handiko egitura sozioekonomikoak zeharo aldatzen hasi zirelako. XVI. eta XVII. mendeetan ez bezala, Parlamentua ez

zegoen prest ofizialen alde jokatzeko. Enpresariaren interesak Parlamentuan gero eta eragin handiagoa zeukatenez, era argi batean alderdi politikoek mekanizazioa bultzatzea Britainia Handirako ezinbestekoa zela erakutsi zuten; honekin, nazioarteko merkataritza garatzen zen, prozesu hau ekonomi hazkundera gehitzeko funtsezkoa zelarik. Gauzak honela, apendizien kopurua murrizten zuten neurri legalak indar barik geratu ziren, mekanizazioak ofizio handirik gabeko umeen lana baimentzen zuten eta.

b. Frantziako kasua: Gremio boteretsuak eta ofizial erre-boltariak

Nazio honetan gremioak Ingalaterran baino askoz boteretsuagoak zirenez gero, ez legoke soberan ermandade hauek Erregimen Zaharrean suposatzen zutenari buruz hitz egitea, berriro ere gremioek ez zutela garaiko langile-mugimendurekin zer ikusirik gogoratu beharra daukagun arren.

Erdi Aroan sortutako eta Aro Modernoan barrena garatutako frantses gremioak erakunde pribilegiatuak ziren, hain zuzen ere testuinguru estamental batean; honetan, noblezia eta apezkeriak pribilegio anitz edukitzeaz gain, lurralde batzuk eta zenbait erakunde ere pribilegiatuak ziren. Modu honetan, gremioetan sartuta zeuden artisauek bere aktibitatea inportantetzat jotzen zuten, bera “arte” zela pentsatzen zutelako; nekazariak eta langile ezkualifikatuak “lana” bakarrik gauzatzen zuten, gremioekideen ustez. Irakurleak aspektu

hau ondo uler dezan, kontutan hartu behar du Erregimen Zaharraren ideologian lana mesprezuz ikusten zela, honetan ihardutea desohorezkoa zelarik.

Hiri bakoitzean, ogibide baten barruan gremio bat zegoen, erakunde hauen arteko solidaritatea oso aukera gutxitan azalduz. Gremio bakoitzak bere interesak soilik defendatzen zituen, sarritan gainontzeko gremioen kontra jokatu behar zuen, euren arteko gatazkak ugariak izan ohi zirelarik. Bestalde, Europako gainerako nazioetan gertatzen zen legez, Frantziako gremioek beren burua komunitate erlijiosotzat hartzen zuten, beren xedea bazkideen arteko kristau anaitasuna kontserbatzea zela pentsatuz. Honela, gremio baten funtzioa barne-gatazkak ekiditea zen eta, beraz, batetik, maisuen arteko arazoetan eta, bestetik, maisu eta langileen arteko eztabaideetan parte hartu behar zuen. Ekonomi aktibitateaz eta artisauen ongizateaz arduratzeaz gain, gremiook soziabilitate arloan ere garrantzi handia zuten, santu patroien egunean otordu eta festa ospetsuak antolatzen zituztelarik. Azkenik, Erregimen Zaharreko Frantziar gremioak korporazio pribilegiatuak zirenez, Parlamentuan eta estatu-zeremonia askotan parte hartzen zuten.

Beste aspektu bati oratuz, eta egungo historiografiak azpimarratu duenez, gogoratu behar da industri aktibitate guztia (eta, zenbait kasutan, gehiena) ez zegoela gremio-ereduetan sartuta, erakunde hauek hirietan soilik agertzen zirelako. Honek esan nahi du

herrietan bizi ziren artisau tipikoek (okin, zurgin, zapataginek...) ez zutela inolako gremio erlaziorik. Are gehiago, eta askoz ere inportanteagoa dena, nekazal munduan laborari askok funtsezko industri aktibitatean ziharduten, alegia, “protoindustrializazioa” izenekoan, haiek inolako gremiorik eduki gabe¹³. Eredu honetan, nekazariak, lurretan bere lana beharrezkoa ez zenean, ehungintzan aritzen ziren, honako eskema hau segituz: hiri-merkatari batek lehengaiak (lihoa, artilea...) laborariei eman ostean, hauek ohialak ekoizten zituzten, azkenik aipatutako merkatariak produktuak merkatuetan saltzen zituztelarik. Prozesu honen bidez, enpresariak abantaila anitz lortzen zituzten, nekazal munduan ordaintzen ziren soldadak hirietan baino askoz ere txikiagoak baitziren eta gremioen araudi hertsia ekidin ahal baitzituzten. Guztitara ere, ezin daiteke pentsatu gremioek kontrolatzen zuten produkzioa makala zenik, zenbait ogibidetan (esaterako, luxu-ondasunen sektorean) bere aktibitatea oso garrantzitsua zelako.

Dena den, eta Ingalaterran suertatu zen modura, frantziar gremioak gero eta erakunde itxiagoak ziren, maisuek ermandadeak erabat menperatuz. Honela XVI. mendearen ondoren (eta Erdi Aroan ez bezala) gremioen biltzarretan maisuek baino ez zezaketen parte hartu, era berean ermandadeok emandako diru-laguntzak (gaixorik egotekotan edo bere senidei, gremiokideak hiltzekotan) haiek soilik jaso ahal zituztela.

Egoera hau emanda, argi eta garbi uler daiteke zergatik ofizialek bere elkarte propioak (*compagnonages* zeritzanak) burutu behar zituzten, euren interesak era egokian defendatu nahi izanez gero¹⁴. Egia esan, langile-elkarte hauen sorteria oraindio iluna da oso, honi buruzko kondairak ugariak ziren eta. Tankera honetan, XVIII. eta XIX. mendeetan *compagnon* batzuk aritu ziren elkarte hauei buruzko narrazio mitikoak idazten; hauetan, *compagnonages* Salomon famatuaren erregealdian edo tenplarien garaietan sortuak balira bezala agertzen dira. Agian irakurlea konturatuko da mazoneriak mito berberak erabili zituela; hau ez da kasualitatez gertatzen, *compagnonages* izenekoek eta mazon elkarrekin puntu batzuk amankomunean baitzituzten (esaterako, biak erakunde sekretuak ziren, erritu bereziak praktikatzeko zituztelarik).

Aspektu mitikoak alde batera utzita, dokumentazio historikoaren arabera esan dezakeguna honako hau da: *compagnonages* XV. mendean sortuta zeuden zegoeneko, garai honetan maisu eta ofizialen arteko gatazka batzuetan parte hartu zuten eta. Aro Modernoan, behin eta berriro elkarrekin ezlegalak zirela azaltzen denez, hauei buruzko informazioa ez da nahi izango genukeen argia eta adierazgarria. Izan ere, txosten polizialek eta judizialek bakarrik *compagnonages* hauei buruz berba egiten digutenez, daukagun dokumentazioan elkarrekin hauen aurkako iritzi ugari agertzen dira. Elkarrekin ez legalak zirela kontutan hartuz gero, argi ulertzen da erakunde sekretuak izan behar honen zergatia, bazkide

berri bat sartzen denean, oso erritu bitxiak ospatuz¹⁵. Honekin batera, eta bere antolakuntza bermatu nahian, oso erakunde jerarkikoak ziren, *compagnonages* batean kargu anitz zirelarik. Haien artean, "lehendabiziko *compagnon*" izenekoaren garrantzia aipatu behar da, bere boterea egundokoa zen eta. Honez gain, erakunde hauetan praktikatzeko zen diziplina zeharo gogorra zen; honela, *compagnon* batek huts edo delituak burutuz gero, isun handiak (eta, zenbait kasutan, gorputz-zigorrek ere) nozi zitzaizkeen.

Aro Modernoan zehar, *compagnonages* izenekoek ez zeukaten euren artean inolako harreman organikorik, XVIII. mendean agertutako kasu batzuk salbu, garai horretan ogibide batzuen *compagnonages* bildu baitziren ("Lau Korporazioak" eta "Sei Korporazioak" zeritzanak eratuz), amankomunean eduki zitzaizketen interesak defendatzeko asmotan. Dena den, eta goian izkiriaturakoari jarraituz, elkarrekin hauen arteko erlazioak oso zailak izan ohi zirela esan beharrean gaude. Edozein kasutan ere, *compagnonages* hauek burutatutako borrokarik garrantzitsuenak beste erakunde, pertsona edo taldeen kontrakoak ziren; alegia, hauek ez zuten bazkideak ez ziren ofizialen konkurrentzia onartzen, azken langile hauek soldata bajuegiak kobratzeko prest zeudela pentsatzen zutelako, honela ogibide baten barruan ziharduten ofizialen arteko solidaritatea apurtuta geratzen zelarik. Baina *compagnonages* zeritzanek gauzatutako gatazkarik nagusiak maisuen aurkakoak ziren, nahiz eta

elkarteok artisau jerarkia zeharo errespetatu eta maisuen estatusa erabat onartu. Beraz, maisu batek ofizial baten portaera desegokia (gaizki lan egiteagatik edota alferra izateagatik...) salatzen zuenean, *compagnonnage* delakoak bazkide hauen kontrako neurri komenigarriak hartzeko prest zeuden. Maisuekiko lankidetzak hau bilatzen bazen ere, ofizialen elkarteek ez zuten lan-baldintza txarrik baimentzen. Era honetan, erakunde hauek tradizioan mantendutako gutxienezko soldatak (“tarifak” zeritzanak) kontserbatzen saiatzen ziren, maisu batek alokairu hauek errespetatu ezean, bere lantegia “zigortuta” geratuz. Honek esan gura zuen inork ezin zuela lantegi horretan lanik egin, harik eta maisuak bere ofizialekin soldatak negoziatu arte. Azken gertakari hau kontutan hartuta, ez da harritzekoa maisuek behin eta berriz (batipat, XVIII. mendean) elkarte hauen “tirania” salatzea; honela, Frantziako Iraultzaren *cahiers de doléances* famatuetan, gremioek *compagnonnages* hauen aurka neurri gogorak hartu behar zirela eskatu zuten.

3. Langile-elkarteak Aro Garaikidearen hasieran

a. Ingeles adibidea: “Lan-aristokraziak” menperatutako langile-mugimendua

XIX. mendeko hasieran, langile-elkarteen egoera zeharo okerragotu zen, 1799-1800. urteetan Parlamentuak promulgatutako *Combination Laws* ospetsuak zirela kausa¹⁶. Lege hauen

arabera, ofizialen elkarte tradizio-nalak guztiz debekatuta geratu ziren, euren ekintzak subertsibotzat hartuak izan zirelarik (batez ere, lan-baldintzak enpresariekin negoziatzen saiatuz gero). Inolako dudarik gabe, lege hauen aldarrikapenaren bitartez kapitalistek izan zezaketen hegemonia Estatuak erabat ziurtatzen zuela azpimarratu beharrean gaude, aldi berean beste aspektu bat gogoratu: industrializazioa hasi ondoren nagusi eta langileen arteko gatazkak hein handi batean areagotu zirela. Honela, langileek modernizazioaren kontrako aurriritziak adierazi zituzten, ongi ezagunak diren zergati batzuk zirela eta: alde batetik, makina berriak erabiltzeak langile gutxiago behar izatea suposatzen baitzuen eta, bestetik, modernizazioarekin haur, gazte eta emakumeen eskulan merkea hedatu baitzitekeen.

Enpresariak bazekiten ongi asko mekanizazioa garatzeko langileen antolakuntza tradizionala apurtzea ezinbestekoa zela; hau kontutan hartuta, ez da arraroa *Combination Laws* agertzea. Dena den, beste faktore baten eragina aipatu beharrean dago, lege hauen aldarrikapena ondo ulertzeko: Frantzian jakobinoek burutatutako iraultzaren beldurpean, britainiar gobernua lege hauekin herri xumearen iraultza bat ekiditen saiatu zen. Azken hau kontutan hartuz, erraz uler dezake irakurleak Parlamentuan *Combination Laws* delakoei buruz izandako debateak hain arinak izatea, lehenbaitlehen indarrean egon zitezela. Britainiar botere politikoak *Combination Laws* neutralak zirela aldarrikatu zuen; honela izanda, elkarte

guztiak (bai langileek burutatutakoak, bai enpresariak antolatutakoak) galerazita zeuden. Baina, praktikan, burgesik ez zen inoiz epaitua izan; langile anitz, ordea, lege hauek zirela medio gartzelaratuak edo Armadan behartuta sartuak izan ziren.

Ohizko historiografiak esandakoari jarraituz, beti idatzi da lege hauek langilieriarentzat zeharo kaltegarriak izan zirela, lan-baldintzek eragin jasanezinak nozitu zituztelarik. Argudio honen arabera, benetako sindikalismoan aritzea debekatuta zegoenez, langileen bizi-maila guztiz okerragotu zen, zeren eta, ordutegiak gero eta luzeagoak ziren bitartean, haiek irabazitako soldatak gero eta baxuagoak baitziren. Gaurko historialari errebisionista askok ondorio sozioekonomiko txar batzuk agertu zirela onartu arren, azpimarratu dute testuinguru orokorra ez zela honen tamalgarria izan, langile-elkarte ugari mantendu baitziren; alegia, mutualismo arloan aritzen zirenak baimenduta zeuden. Iritzi honi jarraituz gero, elkarte mutualistek zeuzkaten egiturak aprobetxatuz, langileek klandestinitatean grebak antolatzen segitzen zuten, gainera euren erradikalismoa gero eta nabariagoa zelarik. Azken finean, britainiar gobernuak jakobinismoaren hedapena galgatu nahian, era paradoxiko batean kontrako ondorioa lortu zuela azaltzen du historiografia errebisionista honek. Are gehiago, azken urteotako ikerketa historikoez esaten dutenez, ohizko hirietan izandako langile-elkarte tradizionalak ez zuten *Combination Laws* hauen eragina zeharo sufritu; fabrikako

langile berriek, aldiz, antolatzen saiatzen zirenean, oztopo asko aurkitzen zuten, batipat elkartzeko ohitura-falta eta langile-kontzientzia urria zirela kausa.

Arestian aipatu duguna aintzat hartuz, ez da harrizkoa *Combination Laws* delakoak indarrean zeuden epealdian greba askorekin topo egitea, haien artean; 1810. urtean 10.000 gorularik lau hilabetez mantendutako huelga aipa dezakegu¹⁷. Dena den, garai horretan maiz suertatzen zen legez, erresistentzi kutxa amaitu bezain laster, greba honek porrot egin zuen. Baina ingeles langileek erakutsi zuten antolakuntza egokia azpimarratu behar dugu, zeren eta euren biltzarretan izendatutako ordezkariak bikain zuzentzen bait zuten mugimendua, aldi berean beste ogibide batzuen solidaritatea lortuz eta oso pikete eraginkorrak prestatuz.

Historiografian ondo ezaguna denez, aktibitate sindikal hauetan normalean langile kualifikatuak ("lan aristokrazia" izenekoa osatzen zutenak) bakarrik aritzen ziren¹⁸. Fabrikako langileek, aldiz, antolakuntza eskasa zuten, gehienetan laborari ohiak zirelako. Gainera, ofizialen elkarte tradizionalak guztiz elitistak zirela adierazi behar da. Fenomeno honen seinale ukalezina honako hau izango litzateke: bazkideek ordaindu behar zituzten kuota altuak. Egia esan, lan-aristokrazian sartuta zirenek bilakaera bati beldur zioten: langile ez kualifikatu bihurtzeari. Beraz, ez da arraroa langile kualifikatuek gainontzeko langileekin izan zezaketen

elkartasuna inondik inora ez agertzea. Honela izanda, garai hartako ingeles langileria zatituta zegoen: alde batetik, lan-aristokrazia osatzen zutenak (oso zuhurak zirenak), sindikalismo antolatua burutuz, eta bestetik, langile ez kualifikatuak. Azken hauek, beste erremediorik eduki ezean, ekintza bortitzak (haien artean, luddismoa), noiz behinkakoak eta arrakasta gutxikoak bakarrik garatzen zituzten. Prozesu historiko honetan, 1825. urtean *Combination Laws* ezabatuak izan ziren Parlamentuan, gertakari honetan Francis Placeren interbentzioa funtsezkoa izan zelarik. Politikari hau burgesia txikiaren ideologo izan arren, beheko klaseek nozitutako egoera desesperatuaren salatari bihurtu zen, euren babesgabekeria Parlamentuan sarritan kritikatu. Hala ere, *Combination Laws* delakoan aurkako debatean parte hartu zuenean, Place-k erabilitako argudioak oso paradoxikoak izan ziren. Bere ustez, lege hauek sistema burgeserako kaltegarriak izan ziren, klandestinitatean mantendutako langile-elkarteek gero eta eragin handiagoa zutelako. Iritzi honi jarraituz, berak esaten zuen Parlamentuak aukera bat baino ez zeukala: elkarrekin legeztatzea, honekin batera lasaitasun soziala lor zedin. Egia esan, *Combination Laws* izenekoan abolizioa aldarrikatu ondoren, epe laburrean langile-elkarteen kopurua igo arren, honek ez zuen lan-gatazka gehiagorik ekarri, ekonomi koiuntura ezkorra baitzen. Beraz, elkarrekin ez zeuden grebak antolatzeke prest.

Beste aspektu bati helduz, *Combination Laws* delakoan epealdian, elkarrekin arteko harremanak oso txikiak izan ziren, elkarrekin bat hiri bakoitzeko ofizio baten barruan bakarrik aritzen zelako. Dena den, 1800. urtetik 1825. urtera, ogibide desberdin batzuen elkarrekin zenbait ekintza amankomunean gauzatu zuten; adibidez, Parlamentuan eskaerak agertzeko edo greban zeuden langileentzat diru-laguntzak emateko. Baina, 1829. urterarte ez zen Britainia Handian inolako elkarrekin orokorrik (eredu lokala gaindituz) azaldu. Aipatutako datan lehen aldiz britainiar lurralde guztietako gorulariak erakunde bakar batean bildu ziren. Elkarrekin honek, garai hartako beste sindikatu orokorrek baino iraupen luzeagoa (bi urtekoa) lortu arren, bere aktibitatea ez zen oso nabaria izan: afiliatuen kuotak oso txikiak zirenez, erresistentzi kutxa ahulek ez zuten greba inportanterik antolatzea baimentzen.

Gorulariek emandako exenpluari jarraituz, 1830. urtean lehendabiziko sindikatu orokorra (*NAPL, National Association for the Protection of Labour*) sortu zen, bere helburua ogibide guztien langileak erakunde bakar batean biltzea izanez. Sindikatu hau garrantzi handikoa izan zen, gutxienez 60.000 britainiar langilek bere egitura parte hartu zuen eta. Honekin batera, bi kazetek sindikatuen ikuspuntuak hedatzen zituzten, langilerian itxaropen handiak sortu zirelarik. Aldi berean, burgesia prozesu honen beldur zen, sarritan prentsa liberal eta kontserbadoreek esaten zuten bezala,

aipatutako sindikatuarekin iraultza gertu zegoelako. Jakina, beldur horiek gehiegizkoak izan ziren, sindikatuaren iraupena oso laburra izan zen eta.

1833-1834. urteetan sindikatu orokor berri bat agertu zen, *GNCTU (Grand National Consolidated Trade Unions)* izenekoa, Owen sozialista ospetsuak antolatu zuena, hain zuzen ere Iparramerikan berak burutatutako esperientzia utopikoek porrot egin ostean. Ideologo honen ikuspuntuak segituz, sindikatu berriak kapitalismoaren kontrako alternatiba bat proposatzen zuen: langileriak bere fabrikak (alegia, kooperatibak) sortu behar zituen. Baina, Owen-en proiektu gehienekin suertatu zen legez, honek ere porrot egin zuen, nahiz eta gertakari interesgarria izan zergati batzuk zirela kausa. Haien artean, aipa daiteke sindikatu honetan (ohizko elkarteetan ez bezala) emakumeek eta nekazal langileek ere parte hartu ahal izaten zutela. GNCTUk 250.000 bazkide afiliatzea lortu zuen, baina kopuru handi hau erraz ulertzen da, sindikatu honetan inolako kuotarik ordaintzen ez zela kontutan hartuz gero. Izan ere, afiliatu gehienak langile ezkualifikatuak izaten ziren, tradizio haundiko langile-elkarteek (ohizko *trade unions* delakoek) Owen-en egitasmoa ez onartuz. Azken gertakari hau ez da arraroa, lan-aristokrazia eredu kapitalista aldatzeko prest ez zegoelako: bere asmoa sistema honen aspektu txar batzuk hobetzea besterik ez zen. Beraz, ingeles langile kualifikatuak ez zuten sekula ere iraultza soziala ager zitekeenik pentsatu, haien artean utopismoa erabat baztertuta geratzen zelarik.

Orainsu idatzitakoari jarraituz, argi konpreni dezakegu ohizko langile elkarte boteretsuek luddismoan parte ez hartzearen zergatia. Nahiz eta lan-ordutegiak 14 edo 16 ordukoak izan edo fabriketan aritzen ziren langileek gehiegikeria nabariak sufritu (esaterako, lanean berba egiteagatik, zikinduta egoteagatik edo lanpostura berandu iristeagatik isun ikaragarriak ordaindu behar zituzten), langile kualifikatuak oso jarrera moderatuak erakusten zituzten. Beste era batera esanda, bere xedea Erregimen Zaharrean artisauek izandako baldintzak luzatzea baino ez zen.

Testuinguru hau ikusi eta gero, azaldu daiteke nolakoa izan zen kartismo famatuaren bilakaera¹⁹. Irakurleak beharbada jakingo duenez, mugimendu hau oso berezia izan zen. Aspektu politiko batzuk eskatzeaz gain (haien artean, sufragio unibertsala), kartismoak herriak bere eskubide sozialak lortu behar zituela aldarrikatzen zuen, azken finean sistema ekonomikoa aldatzeko asmoz. Ingeles sindikatuak ez zuten mugimendu honetan parte hartu, subertsiboa zela pentsatzen baitzuten. Hau dela eta, oso datu adierazgarria eman daiteke: garai hartako sindikatuetan 100.000 langile afiliatuta zeuden bitartean, kartistek Parlamentuan azal dutako eskabi-deetan, gutxien jota, 1.000.000 sinadura lortu zituzten. Honek kartismoaren aldeko langile gehienak ezkualifikatuak zirela esan nahi du, honela bere antolakuntza oso eskasa izan behar zelarik. Beraz, ez da harritzekoa 1842. urtean kartistek prestatutako greba nazional

orokorra porrot hutsa izatea eta 1848. urtean mugimendua desagertzea. Bestalde, gaurko historiografian kartismoari buruz oso iritzi desberdinak egon arren²⁰, idazle gehienek defendatzen dute mugimendu hau iraganari begira planteatuta zegoela, XVIII. mendeko erradikalismo tradizionala birjaso zuelarik. Baina, etorkizunik gabeko ekintza hauetan parte ez hartuta, langile-elkarteek bere helburu apalak erakutsi zituzten: garai hartako sindikalismoak eredu politiko eta ekonomikoa erabat aldatzea saio alferrikakoa zela uste zuten.

Egia esan, 30.eko eta 40.eko hamarkadeetako sindikalismoak behin eta berriro enpresariekin kolaborazioa mantendu behar zela aldarrikatu zuten, grebak tresna desegokiak zirela pentsatuz. Langile-elkarte hauentzat, hobekuntza puntual batzuk lortzeko, moderazioa ezinbestekoa zen, langileria-aren interesentzat lehen agertutako iraultzaren beldurra kaltegarria zelarik. Moderazio honekin, ez zen sindikatu orokor baten beharrik ikusten, ogibide bakoitzaren elkarte tradizionalak aipatutako xedeak lor bait zitzaketen.

b. Frantziar ereduak: Ohizko artisauek eraturako langile-mugimendua

Irakurleak agian jakingo du Frantziako Iraultzaren bidez korporazio guztiak desagertu zirela, helburu hau frantziar iraultzaileen pentsakeran funtsezkoa zela azpimarratu behar dugularik. Honen ondorioz, ohizko estamentuek izandako pribilegioak edo lurralde batzuk

edukitako foru bereziak ezabatzearekin batera, artisau gremioek ere bere zentzua galdu zuten.

Dena den, 1776. urtean gremioen desagertzea aurreko adierazgarri bat izan zuten, hain zuzen Turgot ministrariak bere ideia fisiokratikoak inposatu nahi izan zituenean. Politikari honek, intelektual liberal guztiek bezala, gremioak garapen ekonomikoa bultzatzeko desegokiak zirela pentsatzen zuten. Ezaguna denez, Turgot-ek ezin izan zuten Erregimen Zaharraren aldekoen aurkaritza garaitu, errege frantsesak haren destituzioa promulgatu zuelarik. Hau zela eta, gremioen aurkako dekretuak iraupen motza besterik ez zuten izan, erakunde hauen amaiera gertu bazegoen ere. Tankera honetan, Giza Eskubideen Deklarazioan korporazioak Frantzia berria eraikitzen saiatzen zen egiturari ez zutela inolako funtziorik aldarrikatu zen. Beraz, Erregimen Zaharrean izandako korporazio guztiak desagertu behar ziren, nazioa eta gizabanakoaren arteko bitartekorik izan ez zedin. Ideia liberal hauei jarraituz, 1791. urtean D'Ailarde-k proposaturako legearen bitartez, gremioak guztiz ezabatu ziren, nahiz eta lehen legalak ez ziren langile-elkarteen bizitza luzatu zen. Are gehiago, Frantziako Iraultzak -teoriaz, behinik behin- herri-interesak defendatzen zituenez, ofizialek euren elkarteak (herriaren ongizatea bilatzen baitzuten) erabat bidezkoak zirela pentsatzen zuten. Argudio hau segituz, langileek bere elkarteak indartzean libertate eta herri-subiranotasuna defendatzen zutela uste zuten. Honela, *club* politiko berriek antolatutako

egiturak imitatuz, zenbait langile-elkartetan eredu errepresentatibo berria inposatu zen, Erregimen Zaharrean elkarteok izandako ezaugarri jerarkiko eta tradizionalak desagertu zirelarik. Azken finean, elkarte hauek herri xumearen alde jokatzeko zuten, ofizialek ezin zitzaizkien pentsatu euren erakundeak ezlegalak zirenik, haien iritziz Frantziako Iraultzaren helburua elkarte hauekin bat baitzeturten. Jakina, burgesek ez zuten gauza berbera pentsatzen, langile-elkarteak ekonomia kapitalista eta merkatu librearekin adostezinak zirelakoan zeudelarik. Modu honetan, elkarteok greba gogor batzuk antolatu eta irabazi ostean, botere politikoak langile-erakundeak oso arriskutsuak zirela erabaki zuen, gai honi buruzko legislazio zehatza promulgatzea ezinbestekoa zelarik. Honela, eta helburu hau lortzeko asmoz, Le Chapelierren proposamena, Parlamentuan eztabaidatu ondoren, lege bihurtu zen; berarekin, langile-elkarteen "tirania" deseustatzen saiatzen zen, erakunde hauek lan-ordutegiak eta soldatak nagusien kontra inposatzen zituztela argudiatuz. Frantziako Iraultzaren oinarriak aipatuz, Le Chapelierrek hiritarrak-bere eskubideak sostengatzeko- bildu zitezkeela defendatzen zuen, baina ezin zitekeen onar bere ogibide-interesak sendotzeko langileak edo nagusiak batu ahal zirenik, azken finean lan-akordioak gizabanakoen artean soilik gauzatu behar ziren eta. Le Chapelierren legeak erakunde profesional guztiak (nahiz langile-elkarteak nahiz enpresariak antolatutakoak) galerazi arren,

langileek baino ez zituzten ondorioak jasan. Lege hau promulgatua izan eta gero, ez dakigu zer gertatu zen langile-elkarteekin, baina historialari gehienek mantendu egin zirela suposatzen dute, klandestinitatean bazen ere²¹. Honez gain, esan beharrean gaude Le Chapelierren legeak langile-elkarteak debekatzen zituela, bakarrik lan-baldintzak negoziatu nahi izanez gero; beraz, helburu mutualistak lortzen saiatzen baziren, elkarteok legalak ziren.

Langile-mundua, Frantziako bigarren iraultzarekin (alegia, jakobinoen iraultzarekin) batera zeharo aldatu zen, *sans-culottes* zeritzanek eratutako mugimenduan ofizialak erabat sartuta baitzeuden²². Mementu honetan zilegi izan bekit gogoratzea *sans-culottes* hauen mugimendua oso konplexua izan zela, bere barnean bai artisau txikiek bai ofizialek parte hartzen zutelako. Honela, bere ideologia eta aktibitatea klaseartekoa bakarrik izan zitekeen; hortaz, *sans-culottes* izenekoek Erregimen Zaharrean izandako helburu anakronikoei jarraitzen zizkieten, etorkizunari begiratu gabe. Beste era batera esanda, ohizko elkartasun bertikalak berpiztu ziren mugimendu honekin, beharbada gertakari hau azken aldiz Frantziako historia garaikidean agertuz. Bestalde, historialari batzuen arabera, *sans-culottes* hauek defendatzen zuten jabegoak zentzu kolektibista zuen, jabetza liberala eta indibidualista haien pentsakeran erabat baztertuta geratzen zelarik. Ideia hau eztabaidagarria bada ere, esan daiteke *sans-culottes* hauek (eta haien artean, jakina ofizialek) ohizko ekonomia defendatzen zutela,

haien xede nagusia elikagaien prezioek bidezkoak izatea zen eta. Mugimendu hau klaseartekoa zenez, ez da (jakobinoen garai honetan) lan-ordutegiak edo soldatak negoziatziari buruzko aipamenik aurkitzen. *Sans-culottes* izenekoek arerio bat besterik ez zuten: goiko burgesia. Era honetan, euren helburua azken talde sozial honek burutatutako iruzurkeriak edo lortutako mozkin gehiegizkoak salatzea zen. Lehen esan dugunez, *sans-culottes* hauek Frantziako Iraultzak defendatutako ideia bati jarraitzen zioten: Errepublikak bat eta bakarra zenez, herriak ezin zitzakeen inolako zatiketarik (maisuen eta langileen artekoak barne) baimendu. Jakobinoen garaia gaintitu ondoren, frantses langileek ideia hauek zeharo ahanzi zituzten, euren klase-interesak bakarrik defendatuz. Horrela benetako langile-mugimendua sortu zen.

Frantziako Iraultzaren osteko langileriaren egoera aztertzerakoan, aspektu bat aipatzea ezinbestekotzat jotzen dugu, alegia, Frantziako industri iraultzak ez ziola ingeles ereduari jarraitu. XIX. mendeko lehengo erdian izandako bilakaera ekonomiko frantsesa berezia izan zenez, Frantziako langile-mugimendua ere ezaugarri atipikoak eduki zituen. Modu honetan, Frantzia fabrikak gutxi garatu ziren, ohizko artisautzak funtsezkoa izaten segitzen zuelarik. Honen ondorioz, normala da artisauek langile-mugimenduan garrantzi handia izatea, fabrikako langileek -gutxi izateaz gain- klase-kontzientzarik ez zutelako.

Egia esan, Frantzia agertutako industri eredu alternatibo honetan, hiriek ez zuten hazkunde handirik eduki (Ingalaterran ez bezala). Frantziako fabrikek oso maila apala zuten, ohizko tailerrek (bai ehungintzan bai burdingintzan) hegemonia mantendu zuten. Are gehiago, artisautzan ziharduten ofizialek fabrikako langileek baino soldata hobeak irabazten zituzten, honez gain euren kohesioa eta solidaritatea askoz ere handiagoak izanez. Beraz, grebak edo beste motatako lan-gatazkak antolatzen artisau langileak fabrikako langileak baino hobeto prestatuta zeuden, inolako dudarik gabe.

Beste aspektu bati helduz, ez da pentsatu behar XIX. mendeko lehengo erdian Frantziako ekonomiak geldialdia izan zuenik. Industria modernoa zeharo ez garatu arren, egungo historiografiak XIX. mendeko per capita errentak Frantzia Ingalaterrakoak besteko gorakada eduki zuela azpimarratu du. Hau ondo ulertzeko kontutan hartu behar da frantses hazkunde demografikoa oso txikia izan zela²³. Dena den, Frantzia merkatu nazionala gutxi areagotu arren edo merkatu lokalak eta erregionalak funtsezkoak izaten jarraitu arren, Erregimen Zaharrean artisautzak edukitako ezaugarri guztiak ez ziren kontserbatu. Adibide bat ipintzearen, etxe askoren solairuetan lantegi berri, ezlegal eta desegoki anitz sortu zela aipa dezakegu. Lantegi hauetan lan-baldintzak zeharo okerragotu ziren, honen bidez nagusiek mozkin gehiago ateratzen zutelako. Lantegi hauek, ofizialen aurkaritza edukitzeaz gain,

ohizko maisuek ere areriotzat hartu zituzten, artisau hauentzat lantegi berriek konkurrentzia handia suposatzen zuten eta. Gainera (Ingalaterran bezala) gremioen eredia desagertu ondoren, apendizek lehen izandako oztopoak indarrrik gabe geratu zirenez, haur edo emakumeen lana erabiltzea zilegia zen, ohizko ofizialen bizi-mailak asko sufritu zuelarik.

Egoera honetan, langile-elkarte batzuk 1. Inperioan eta Berrezarkuntzan berpiztu ziren; hain zuzen ere, elkarte mutualistei buruz hitz egiten ari gara, bai Estatuak bai Elizak haiek zeuzkaten proiektuak begi onez ikusten zituztelarik. Elkarte hauek, gizarte-aurrikustea (gainera erlijio-kofradien erak hartuz) bilatzen zuten, ez zuten arazo handirik garatzeko. Guztitara ere, oso bazkide gutxi (gehien jota 100 edo) zuten, honen ondorioz bere garrantzia txikia zelarik. Bitartean, ezlegalak ziren *compagnonnages* tradizionalak mantentzen ziren, bi motatako erakunde hauek lan-arazoetan parte hartuz, aktibitate hau klandestinitatean burutu behar bazuten ere. Azken finean, eta Ingalaterran gertatzen zen gisara, frantziar elkarte mutualistek ofizial gaixo edo zaharrei diru-laguntzak emateaz gain, grebak antolatzen zituzten, aldi berean beste erakunde batzuekin batera langile-sozialitate bultzatuz²⁴.

Dena den, 1. Inperio eta Berrezarkuntzan izandako langile-elkarteek ez zuten langileriaren historian aldaketa handirik sortu, klase-kontzientzia 30.eko iraultzarekin

soilik agertzen hasi zelako²⁵. Irakurleak urte horretan iraultza liberala eman zela gogoratuko du, prozesu honetan askatasunaren alde langileek parte hartu zutelarik. Baina, monarkia orleanista berriak garaipena lortu eta gero, langileak konturatu ziren burgesek aldarrikatzen zuten libertatea ez zela langileriak nahi zuena, askatasun indibidualista hutsa baizik. Hau zela eta, erregimen berriak lan- eta industri-libertatea defendatzen zituenez, langile-elkarteak berriro ere erabat galerazita geratu ziren, lehen Frantziako iraultzarekin gertatu zen legez. Abagune honetan, langileak sistema liberalak eskaintzen zuena burgesiaren hegemonia sendotzea baino ez zela konturatuta, klase-kontzientzia hasi zen eratzten, langileriak kapitalismoari alternatiba bat bilatu behar ziola pentsatuz. Jakina, klase-kontzientzia eratzea oso prozesu konplexua izan zen, honetan garaiko ideia sozialistek (Saint-Simon, Proudhon, Fourier, Blanc, Cabet eta beste abarren pentsamenduek) garrantzi handia izan zutelarik. Langileriak ideologo utopiko hauen egitasmoak era berezi batean barneratu zituen, batipat kooperazioaren defentsa eta konkurrentziaren ukapena bultzatuz. Dena den, azken historiografiaren arabera, langileen artean sozialista utopikoen eragina zeharo hedatuta zegoen, XIX. mendearen lehen erdiko Frantziar beste inon ez bezala- sozialismoa mugimendu masibo bilakatu zelarik²⁶. Hala ere, oraintsu idatzi duguna baino askoz ere inportanteagoa da klase-kontzientziaren agerpena nola gauza zitekeen jakitea. Egia esan, gertakari hau oso berezia izan zen, langileriaren

ideologoen aspaldian burgesek defendatuko ideia batzuei aprobetxatu zituzten eta.

Modu honetan, gogoratu behar da Frantziako Iraultzaren hasieran Sieyès politikari famatuak (noblezia eta apezteriak zeuzkaten pribilegioak erasotzeko asmoz) oso argudio bitxia erabili zuela: estamentu hauek -produktiboak ez zirenez- ez zuten nazioa eratzeko, hirugarren estamentuak soilik herria osatzen zuelarik. Ideia hau eraldatu, 30.eko langile ideologoen “laugarren estamentuak” (hots, langileriak) mementu hartako nazioa eratzeko zuela adierazi zuten, era honetan garaiko kazeta batean (*L'Artisan* delakoan) honako hau aldarrikatu: “Herria langileria baino ez da”²⁷. Pentsamendu honi jarraituz, burgesia aristokrazia berri bat zela eta beste sistema feudal bat inposatu zuela esaten zen, azken finean langileria zapaltzeko asmoz.

Honekin batera, ekonomilari klasikoek aurkitutako lan-balioaren teoria profitatu, langileek bere kapitala (alegia, lan-indarra) ere bazeukatela defendatzen zen. Are gehiago, garaiko panfletoetan “proletariaren anaitasuna” helburutzat jotzen zen, ohizko gremialismo zatikagarria gaindituz. Testuinguru honetan, elkarte mutualistek bere egitura tradizionala aldatzen zuten bitartean (esaterako, erlijio-kutsua galduaz), ideologo batzuek (batez ere, Buchez-ek) kontzeptu berri bat asmatu zuten, alegia, “kapital soziala” izenekoa. Honen arabera, enpresek langile-kooperatiba bihurtu behar zuten, hauetan funtzionamendu demokratikoa

ardatz nagusitzat hartzen zelarik. Beraz, bilatzen zen xedea honako hau zen: langileak lantegi guztien jabeak izatea, eredu burgesari erabateko aukera bat sortuz.

30.eko eta 40.eko hamarkada hauetan, langile-prentsa hedatzeaz gain, langile-elkarteek greba garrantzitsu batzuk ere antolatu zituzten. Haiek -Frantziako historia garaikidean- huelga arrakastatsuenak izan ziren, etenaldien %56 langileen garai-penarekin amaitu zen eta²⁸. Dena den, greba hauek oso maila apala zutela aipatu beharrean gaude: garaiko industrian agertutakoekin parekatuz gero, langile gutxiak parte hartu zuten huelga hauetan. Bestalde, greba hauek burutzen zituzten langileak lantegi txikietan lan egiten zuten artisauak ziren, etenaldiak oso iraupen motza (4 egunez, batezbeste) edukiz.

Beste puntu bati oratu, aipatutako hamarkadetan sozialismo berbak egundoko hedapena lortu zuen, eta ez bakarrik langileen artean, baizik eta burges-prentsan ere (erabat bildurtuta, noski) honi buruz behin eta berriro idazten zen. Era honetan, ez da harritzekoa, 48.eko Iraultza prestatzerakoan, errepublikanismo eta sozialismoa (“Errepublika Demokratiko eta Soziala”) helburu nagusiak izatea. Ezaguna denez, 48.eko Iraultzak garai-pena lortu zuenean, langileriak -lehen aldiz, Historian zehar- behin-behineko gobernuan 2 ministrari izan zituen: L.Blanc (ideologo sozialista bat) eta Albert (sindikalismoan aritutako langile bat). Gauzak honela, langile elkarteak legeztatzeke asmotan, gobernuok

dekretu bat promulgatu zuen, monarkia orleanistan langile-mugimenduak nozitutako errepresioa amaitu zelarik. Hala ere, eta gobernuok langileriaren aldeko erretolika ederra erabili arren, gauzatutako ekintza praktikoak ez ziren eraginkorrak izan. Honi buruz adibide adierazgarri bat jar daiteke: "Lantegi Nazionalak". Hauek Erregimen Zaharrea edo Berrezarkuntzan krisialdiak murrizteko agertzen zen estatu-karitatea ez zuten gainditzin. Honela, lantegi hauekin langile batzuk lan publikoetan kontratatzea bakarrik lortu zen, neurri honen bidez langabezia era inozo batean amaitzen saiatzen zelarik.

Bestalde, langileriaren lasaitasuna mantentzeko asmotan, behin-behineko gobernuak Luxemburgeko Batzordea sortu zuen, teoriak erakunde hau "Langileen Parlamentu" bihurtu behar izanez. Egia esan, batzorde honetan parte hartu zutenek (bai adituek, bai sindikalistek) eztabaida nimiñoetan

besterik ez zuten ihardun, emaitza praktikorik lortu barik.

Ondo ezaguna denez, 48.eko Errepublika Demokratiko eta Soziala udaberri baten amets polit bat bakarrik izan zen. Cavaignac jeneralak estatu-kolpea eman zuenean, langileriaren ilusioak amaitu ziren. Harrez gero, frantses langile-mugimenduak errepresio gogorra pairatu zuen, batipat Napoleon III.aren inperioan. Garai honetan sindikalismoak traba anitz aurkitu zuen, berriro ere ohizko era mutualistak hartu behar izanez. Ingalaterran suertatu zen gisara, 1850. urtearen ondoren frantziar langileen artean moderazioa nagusitu zen, 30.eko eta 40.eko hamarkadetan agertutako saiakuntza utopikoak erabat ahaztuta geratu zirelarik. Modu honetan, gremialismo zatikagarria berpiztu zen, bakarrik XIX. mendearen bukaeran benetako sindikalismo orokorra behin betirako inposatuz.

Oharrak

- (1) WEBB, S. eta B.: *Historia del sindicalismo, 1680-1820*, Madril, 1990. Langile-mugimenduaren historialari klasiko hauen ideiak hobeto konprenitzeko, irakur daiteke: HARRISON, R.: "The Webbs as historians of trade-unionism" in SAMUEL, R.: *People's history and socialist theory*, Londres, 1981, 322-326 orr.
- (2) Gremioak garatu ziren epealdi historikoan zer motatako egitura sozioekonomikoa dugun jakitea zaila bada ere, gogora dezagun honi buruz zenbait polemika famatu sortu zela. Batez ere, bi debate aipa daiteke: alde batetik, XX. mendeko 50.eko hamarkadan SWEZZY, P. et. al.: *La transición del feudalismo al capitalismo*, Madril, 1972 eta bestetik, ASHTON, T.H. eta PHILPIN, C.H.E.: *El debate Brenner*, Bartzelona, 1978, azken hau 70.eko hamarkadari dagokionez.
- (3) THOMPSON, E. P. : "La economía moral de la multitud en la Inglaterra del siglo XVIII", in *Tradición, revuelta y conciencia de clase*, Bartzelona, 1979, 62-135 orr. Ikuspuntu honen kontra zenbait saio agertu dira azken urteotan, adibidez: STEUENSON, J.: "The moral economy of the english crowd. Myth and Reality" in FLETCHER, A. eta STEVENSON, J.: *Order and Disorder in Early Modern England*, Cambridge, 1987, 218-239 orr.
- (4) Ikus, LASLETT, P.: *The world we have lost*, Londres, 1979(3), FLANDRIN, J.-P.: *Familles*, Paris, 1976 eta SHORTER, E.: *Naissance de la famille moderne*, Paris, 1977.
- (5) Hala ere, azken aldi honetan marxistak ez diren historialari batzuk klase-erakuntzaren prozesua aztertzen aritu dira, esaterako: KATZNELSON, I.: *Working class formation Nineteenth Century Patterns in Western Europe and United States*, Princeton, 1986.
- (6) THOMPSON, E. P.: *La formación histórica de la clase obrera*, Bartzelona, 1977.
- (7) THOMPSON, E.P.: "Lucha de clases sin clases" in *Tradición...*, 13-26 orr. Azken urteotan, gai honi buruzko Thompson-en ideiak berraztertuak izan dira, ikus: SEWELL, W.H.: "How clases are made: Critical Reflections on E. P. Thompson's theory of working-class formation" in KAYE, H. et. al.: *E.P. Thompson: Critical Perspectives*, Philadelphia, 1990, 50-78 orr. Sewell-ek orohar Thompson-en lana goraiatu arren, bere ahulezia teoretikoa kritikatzan du.

- (8) Herri-protestari buruz oraindiko Rudé-k idatzitako liburuak atarramenduz irakur daitezke; Ikus, RUDE, G.: *La multitud en la Historia*, Buenos Aires, 1971; *Protesta popular y revolución en el siglo XVIII*, Bartzelona, 1978 eta *Revuelta popular y conciencia de clase*, Bartzelona, 1981. Beste iritzi bat izateko irakur daiteke, HOBSBAWM, E.J.: *Rebeldes primitivos*, Bartzelona, 1974.
- (9) FOSTER, J.: *Class struggle and the Industrial Revolution*, Londres, 1974. Historialari honen azken bilakaera ezagutzeko, ikus FOSTER, J.: “The declassing of language”, *New Left Review*, 1985.
- (10) HOBSBAWM, E.J.: *Trabajadores*, Bartzelona, 1979, eta *El mundo del trabajo*, Bartzelona, 1987. Hobsbawm-en eragin historiografikoaz ohartzeko, ikus daiteke, MERRIMAN, J. et al.: *Consciousness and Class Experience in Nineteenth Century Europe*, New York, 1979.
- (11) Korrante berri hauei buruz irakur daitezke, CLAES, G.: ”Language and Historical Consciousness in Nineteenth Century Britain”, in *Economy and Society*, 14, 1985, 239-463 orr., GRAY, R.: “The Deconstructing of English Working Class”, in *Social History*, 11, 1986, 362-373 orr., eta SCOTT, J.: *Gender and the politics of History*, New York, 1988.
- (12) DOBSON, C.R.: *Masters and journeymen. A Prehistory of Industrial Relations, 1717-1800*, Londres, 1980.
- (13) Protoindustrializazioari buruz azken hamarkadan asko idatzi bada ere, irakurleari bi liburu gomenda diezaiokegu. Alde batetik, funtsezkoa da: MEDICK, H. et. al.: *Industrialization before Industrialization*, Cambridge, 1981 eta, bestetik, ikuspuntu sintetiko bat lortzeko irakur daiteke: KRIEDTE, P.: *Feudalismo tardío y capital mercantil*, Bartzelona, 1982, 95-123 orr.
- (14) Elkarte hauen bilakaera ikusteko, oraindik libururik interesgarriena honako hau da: COORNAERT, E.: *Les compagnonnages en France*, Paris, 1966.
- (15) Ikus, TRUANT, C.: “Solidarity and symbolism among journeymen artisans”, *Comparative Studies in Society and History*, 21, 1979.
- (16) Aspektu hauei buruz, irakur daiteke RULE, J.: *Clase obrera e industrialización*, Bartzelona, 1990. Liburu honen informazioa zeharo aprobetxatu dugu orrialde hauetan.
- (17) MUSSON, A. E.: *British Trade Unions(1800-1875)*, Londres, 1972.

- (18) Honi buruz irakur daiteke, MOORHOUSE, E. H.: “The marxist Theory of the Labour Aristocracy”, *Social History*, 1978, 61-82 orr. eta MUSSON, A. E.: “Class struggle and Labour aristocracy”, *Social History*, 1976. Halaber garai hartako ingeles langile kualifikatuei buruz ikus, HARRISON, R. eta ZEITLIN, J.: *Divisions of labour: skilled workers and technological change in nineteenth century Britain*, Brighton, 1985.
- (19) Ikus, JONES, S. G.: *Lenguajes de clase. Estudios de historia de la clase obrera inglesa*, Madril, 1989 eta KIRK, N.: “En defensa de la clase”, *Historia Social*, 12, 1992, 59-101 orr., kartismoari buruzko iritzi antagonikoak parekatzeko.
- (20) Gai honi buruzko historiografia klasikoak funtsezkoa izaten jarraitu arren, ikerketa berri interesgarri batzuk agertu dira, adibidez: EPSTEIN, J. et al.: *The chartist experience*, Londres, 1982 eta THOMPSON, D.: *The chartists: Popular Politics in the Industrial Revolution*, New York, 1984.
- (21) SEWELL, W.H.: *Trabajo y revolución en Francia*, Madril, 1992. Liburu hau ezinbestekoa izan da orrialde hauek idazteko.
- (22) Ikus, SONENSCHER, M.: “The sans-culottes of the Year II: rethinking the language of Labour in revolutionary France”, *Social History*, 1984, 301-328 orr.
- (23) O'BRIEN, P.: *Economic Growth in Britain and France, 1780-1914*, Londres.1978.
- (24) Egungo historialari batzuek (batipat, AGULHON, M.: *Histoire vagabonde*, Paris, 1988) aipatzen dutenez, langile-soziabilitatea tabernetan, kasinoetan edo elkarte mutualistetan gauzatzeaz gain, leku eta erakunde hauek oso garrantzitsuak izan ziren langileen heziketa politiko eta soziala lor zedin.
- (25) SEWELL, W. H.: “Los artesanos, los obreros de fábrica y la formación de la clase obrera francesa, 1789-1848”, *Historia Social*, 12, 1992, 131-134 orr.
- (26) *Ibidem*.
- (27) DOLLEANS. E.: *Historia del movimiento obrero*, I, Madril, 1969.
- (28) SHORTER, E. eta TILLY, C.: *Las huelgas en Francia, 1830-1968*, Madril, 1985.